# BAYONETA

## Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

*Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,*
*Eusco Icascuntzaren pribilejioarequin,*
*Reding mercatalecheac, Artem moldizteguian.*



*Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,*
*con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,*
*por la casa de comercio de Reding, en la imprenta de Artem.*

**Tolosan, 1813co agorrillaren 12an. Londresco Estafeta, Donostitic iritsia.**

Tolosarrac, contrajarritaco sentimentuen egunac dira auec. Poza eta Tristura sentimentuac, Atsecabe eta Gorace sentimentuac. Basatiaren esbirroen burni-escuaren menpe sofritu dugun bost urte luce auetan zear, bidali eguin dizquizuet nigana Donostitic, Londresco bidea medio, bere Tirania itogarriaren atsarequin Lurra cutsacen duen Geryon irucoiztu orren aurca oraindic ere eguiten ari den guerra izugarriaren egoerari buruz iristen ciren berriac. Gaur, alere, 1813co agorrillaren 12an, Londresco nire estafetac Donostitic ez du inongo berriric bidalcen, baizic eta gueure tropec gaur odoleztutaco Bidasoa uretatic aruncago dagoena zelatacen duten Ondarribico cuarteletatic. Izan ere, ondo asco daquizue, gaur Donostiya, quetutaco ondaquinac baino, ez dela.

Alaxe jabetu naiz Europaco Tiranoa oraindic ere Europa osoaren contra bere bidegabeco guerrari eusten diola. Dresde irian gazteleraturic, Lützen eta Bautzengo zelaietaco bere garaipenez arrocen da, eta bere aurca bildutaco Iparreco potenciac desafiacen darrai, ceinei ez baitie jaquinarazi, Irun ondoco San Marcialgo zelaietan dagonillaco azquen 31a onetan Espainiaco, Britainia Andico eta Portugalgo erreinuco equersitu aliatuec lortutaco garaipen ospetsuaz , eta zuurra izango balitz, berau bere Tiraniaren bucaerazat artu bearco luqueena. Dena den, berri oriec ez dute ezer aipacen dagonillaren 31co enzutezco egun ortanche bertan guertatutaco guertaquizun larrien gainean, azquenean Donostiyan babestutaco Buonaparte Tiranoaren chaperoen desiratutaco errendace eguna eldu zenean. Baina neuc, ixteric lortu ez zuten Bayoneta onen jabeac, contatu eguin bear dizquizuet.

**Tolosaco berriac. Bertan icusiyac.**

Guertu da gugandic garagarrillaren 25eco egun biziqui zoriontsua, ceinetan Ascatasunaren Lagun guztiec izugarri pozic icusi baiquenuen aliatuen equersituen aileguera gueure errira, paregabeco guda baten ostean, Basatiaren esbirroen presencia izurritsuaz libratu baiquintuzten.

Egun ura ezqueroztic, Buonaparteren Tirania gorrotacen dugun guztion artean Pozaraco arrazoiac ia etengabeac eta salbuespen gabecoac izan ziren. Basatiaren Equersituaren uniformeaz jancita zeuden dictadoreen lecuan, guerra bati dagozquion calteac arinceco neurri egoqui eta jaquintsuac marchan jarri zituzten Juan de Ugartemendia coronela edota gueure IV. Equersituaren general-buruzaguia den Francisco Xabier de Castaños y Aragorri - zorigaiztoco soldadu talde caxcar baten azpilanen oiarzunez, orain batzuc iraindu nai dutena- bezalaco guizon ausart eta leialac etorcen icusi genituen eta gueure Zoriontasunaren Baluartea aldarricacea aguindu zuten, gueure goraldiaren oinarria, leengo urteco 1812co epaillaren 19an, Erreinuco Corteec aldarricatutaco Constitucio Jaquintsua dena.

Gueure artean dagonillaren 29tic aurrera eguiaztacea aguindu zen guertaquizuna, eta aalic eta distira aundienaz ospatu zen, gueure Udalbaza berriaren presenciaz azquenean auqueratua eta ez Basatiaren esbirroen bayonetez ezarria, gueure errico eleiza-Cabildoaren etorceaz, eta Mendizabal generalac eta Ugartemendia coronelec escuzabaltasunez esqueini ziguten musicaz apainduric.

Baina pozcariozco guertaquizun auen ondoan, bein bere arresi bicainec ecin izan ziotenean eutsi Britainia Andico eta Portugalgo tropen saiaquerari, Donostiaren chiquizio icaragarriaren gainean itz eguin diguten berri eta pertsonac iristen icusi dituzue azquen egun auetan. Agorrillaren 7an jaquin zenuten gueure Udalbacac gueure Donostiaco iriquideei ostutaco gaucen salmenta zitala gueldiarazteco aguindua eman zuela. Lapurreta oiec soldadu talde ziztrin batec eguinac izan ziren. Soldadu doilor oriec, bestalde, ain tropa aliatu goraipagarri orietaco parte dira. Ala ta guztiz ere, edocein zaldun burutsu oficialec esatea daucan bezalaxe, gaur bere soldadu lagunec mesprechatu ta gorrotacen dituzte zoricharreco egun orretan eguindaco maltzurqueriengatic.

Naasmen onetan eta oraindic ecin da jaquin ziur nola aal izan zen orban itsusi ori britainiar eta portugaldarren ia etengabeco arma distiratsuen gainean erortzea. Basatiaren contraco gueure borrocan lagundu diguten portugaldar eta britainiar oriec berac. Cadizeco café-echeetaco nire laguna den irachoac jaquitea prometacen du, eta neuc lagundu eguin bear diot. Onela, zoricharreco guertaera oriec tarteco, negarra beguietan oraindic, uzten zaituztet bost urte luce auen ondoren, ziurtaturic Europaco Tiranoaren contraco Guerrac amaiera arte jarraituco duela eta berautic Ascatasunaren etsai guztiei, Justuac eta Ongilleac izan nai ez duten guztiei, Justicia ezarriz garaipen argia sortuco dela. Jazten duten uniformea jazten dutelaric. Enperadore baten purpura odeleztatua izan edo aliatutaco equersitu baten soldaduarena. Eta Justicia eta Ascatasunaren lagun guztiec copac alchatuco ditugu beren gorpuzquiñen gainean.



*Tiranoen acabera - El fin de los tiranos*

**En Tolosa a 12 de septiembre de 1813. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.**

Tolosarras, estos son días de sentimientos encontrados. De Júbilo y de Tristeza, de Amargura y de Exaltación. Durante estos largos cinco años en que hemos sufrido bajo la mano de hierro de los esbirros del Ogro, del Tirano de la Europa, os he remitido noticias, que llegaban a mí desde San Sebastián por la vía de Londres, sobre la marcha de la formidable guerra que aún se libra contra ese triple Geryon que infecta la Tierra con el aliento sofocante de su Tiranía. Hoy, 12 de septiembre de 1813, sin embargo, mi estafeta de Londres no envía ninguna noticia desde San Sebastián, sino desde los cuarteles de Fuenterrabía en los que nuestras tropas vigilan lo que hay más allá de las hoy ensangrentadas aguas del Bidasoa. De hecho, bien lo sabéis, hoy San Sebastián no existe, salvo como ruinas humeantes.

Es así como me he enterado de que el Tirano de la Europa aún se empeña en sostener su injusta guerra contra toda la Europa. Encastillado en la ciudad de Dresde, alardea de sus victorias en los campos de Lützen y Bautzen y continúa desafiando a las potencias del Norte coligadas contra él, a las que trata de mantener en la ignorancia sobre la gloriosa victoria que los ejércitos aliados de la España, la Gran Bretaña y el reino de Portugal han logrado este último 31 de agosto en las laderas del Monte San Marcial junto a Irún y que el Ogro, si fuera prudente, debería considerar como el fin de su Tiranía Nada dicen, sin embargo, esas noticias de los espantables hechos que acaecieron ese mismo día glorioso de 31 de agosto, cuando al fin llegó el ansiado día de la rendición de los esbirros del Tirano Buonaparte guarnecidos en San Sebastián. Pero yo, el dueño de esta Bayoneta que no consiguieron encerrar, debo contároslos.

**Noticias de Tolosa. Observadas del natural.**

Próximo está a nosotros el felicísimo día del 25 de junio en el que todos los Amigos de la Libertad vimos exultantes la llegada a nuestra villa de los ejércitos aliados, que tras una formidable batalla nos libraron de la pestífera presencia de los esbirros del Ogro.

Desde aquel día los motivos para la Alegría entre todos aquellos que odiamos la Tiranía de Buonaparte fueron casi continuos y casi sin excepción. Donde había dictadores vestidos con el uniforme de los Ejército del Ogro, vimos llegar hombres valientes y justos como el coronel Juan de Ugartemendia o el general don Francisco Xavier de Castaños y Aragorri, general en jefe de nuestro 4º Ejército -al que ahora algunos quieren denostar, haciéndose eco de patrañas urdidas por una miserable soldadesca- que aplicaron sabias y justas medidas para aliviar los males que siguen a una guerra y mandaron proclamar el Baluarte de nuestra Felicidad, el cimiento de nuestra prosperidad, que es la Sabia Constitución promulgada por las Cortes del Reino el 19 de marzo del año pasado de 1812. Hecho que entre nosotros se ordenó verificar a partir del 29 de agosto y se celebró con todo el lucimiento posible, con la presencia de nuestro nuevo Ayuntamiento (al fin elegido y no designado por las bayonetas de los esbirros del Ogro), con la asistencia del Cabildo eclesiástico de nuestra villa, y adornado por la música que nos facilitaron amablemente el general Mendizabal y el coronel Ugartemendia.

Pero junto a estos hechos jubilosos habéis visto llegar entre nosotros estos últimos días noticias y personas que nos han hablado de la espantosa destrucción de San Sebastián una vez que sus formidables muros sucumbieron al esfuerzo de las tropas de la Gran Bretaña y Portugal. El 7 de septiembre supisteis que nuestro Ayuntamiento daba orden de detener la infame venta de objetos robados a nuestros conciudadanos de San Sebastián por alguna miserable soldadesca que milita en esas, por otra parte, tan encomiables tropas aliadas, y que como cualquier caballero oficial cabal os podrá decir son hoy despreciados y aborrecidos incluso por muchos de sus compañeros por las vilezas que cometieron ese día aciago.

La hora es confusa y aún no se sabe de cierto cómo fue posible ese feo baldón que cae sobre las casi de continuo brillantes armas de los británicos y portugueses que nos han ayudado en nuestra lucha contra el Ogro. Mi amigo, el duende de los cafés de Cádiz, promete averiguarlo y yo le he de ayudar. Así, aún con el llanto en los ojos por esos hechos luctuosos, os dejo tras estos cinco largos años asegurándoos que la Guerra contra el Tirano de la Europa será proseguida hasta el fin y que de ella surgirá un brillante triunfo que se celebrará aplicando Justicia a todos los enemigos de la Libertad, a todos los que no quieren ser Justos y Benéficos. Vistan el uniforme que vistan. Sea la ensangrentada púrpura de un emperador o el de soldado de un ejército aliado. Y sobre sus despojos brindaremos todos los amigos de la Justicia y la Libertad.